



Europako
Batzordea

ESKUBIDE BERRI BAT
EB-KO HERRITARRENTZAT

ZURE ESKU DAGO NORABIDEA ALDATZEA

Europako Herritar Ekimenerako gida



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a argialetxe honetan: 2018ko azaroa

Ale-kopurua: 170 ale

©Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza

Internet: www.euskadi.eus

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz)

Inprimaketa: Gráficas Dosbi

Lege-gordailua: VI 65-2019

Hitzaurrea



Europar Batasun demokratikoagoa eta gardenagoa da Juncker Batzordearen lehentasunetako bat. Hortaz, Europako herritar ekimena bereziki garrantzitsua da horri dagokionez, Europako herritarrei aukera ematen baitie beren kezkek zehatz-mehatz adierazteko eta politika- eta legegintza-agendan eragina izateko.

2015eko martxoaren 31n, Batzordeak tresna horren aplikazioari buruzko lehen txostena argitaratu zuen. Bakarrik hiru urtetan, egitateek frogatu dute jendea herritar ekimenaz interesatuta dagoela. Nahikoa da esatea sei milioi herritar inguruk jada eskubide hori erabili dutela eta hiru ekimenek milioi bat sinadura baino gehiago biltzea lortu dutela. Hala ere, badakigu alderdi zehatz batzuk oraindik hobetu daitezkeela: horregatik, hobetzeko aukerei buruz gogoeta egiteko ariketa bat abian jarri dugu eta interesdun guztiek horretan parte hartzea nahi dugu.

Herritar ekimenaren aplikazioaren arduradun den lehen lehendakariorde eta tresna horren ideia garatu zen konbentzioaren, Europako etorkizunari buruzkoaren, kide ohi gisa, ziur nago ekimenak Europa herritarrengana hurbiltzeko itxura osoa daukala. Erabakitzeko prozesuan benetako eragina eduki dezakeela eta ekimenak pizten dituen eztabaida publikoari balioa datzekiela sinetsita nago.

Zalantzarik gabe, badago lana egiteko. Herritar gehienek oraindik ez dakizkitez tresna horrek eskaintzen dituen aukerak, eta tresnaren itxurazko konplexutasunak beste batzuk beldurtzen ditu. Espero dugu gida honek hobeto ezagutzen laguntzea eta herritarrak parte hartzera animatzea.

Frans TIMMERMANS
Europako Batzordeko lehendakariordea

AURKIBIDEA

ZERTAN DATZA?

HERRITAR EKIMENARI BURUZKO OINARRIZKO DATUAK	3
--	---

NOLA ATXIKI EKIMEN BATI?	7
--------------------------	---

NOLA BABESTEN DIRA SINATZAILEEN DATUAK?	11
---	----

NOLA ANTOLATZEN DA EKIMEN BAT?

PROZEDURA URRATSEZ URRATS	13
---------------------------	----

Prozedura begiratu batean	14
---------------------------	----

Ekimena prestatzea	16
--------------------	----

Herritarren komitea sortzea	16
-----------------------------	----

Ekimena Batzordearen web-erregistroan inskribatzea	17
--	----

Web-orrien bidezko bilketa-sistema egiaztatzea	19
--	----

Babes-adierazpenak biltzea	20
----------------------------	----

Babes-adierazpenen ziurtapena lortzea	22
---------------------------------------	----

Herritar ekimena Batzordeari aurkeztea	23
--	----

MILIOI BAT SINADURA DAUZKAGU!

ETA ORAIN ZER?	24
----------------	----

Milioi bat sinadura baino gehiago bildu dituzten lehen hiru ekimenak	26
--	----

NOLA LORTU INFORMAZIO GEHIAGO?	28
--------------------------------	----

ZERTAN DATZA?



OINARRIZKO DATUAK HERRITAR EKIMENARI BURUZ



Zer da Europako herritar ekimena?

Europako herritar ekimenari esker, gutxienez zazpi estatu kideetatik datozen EBko milioi bat herritarrek Europako Batzordeari eska diezaizokete bere eskumeneko eremuetako batean legeria proposa dezala.

EBren tratatuek bermatutako eskubidea da.

Herritar ekimena arautzen duten arauak eta prozedurak EBren erregelamendu batean ezarri ziren; Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak onetsi zuten 2011ko otsailean ⁽¹⁾.

Zer aurkez daiteke Europako herritar ekimen gisa?

Herritar ekimenak Europako Batzordeak eskumenak dituen eremuetako batean legegintza-testu bat proposatzeko eskaera izan behar du (adibidez, nekazaritzari, ingurumenari, garraioei edo osasun publikoari buruzkoa).

Nork antola dezake herritar ekimen bat?

EBko herritar guztiek (hau da, estatu kide bateko herrikideek), Europako Parlamenturako hauteskundeetan bozkatzeko moduko adina daukatenean (18 urte oro har eta 16 Austrian) ⁽²⁾ antola dezakete ekimen bat. Dena den, lehenik herritarren komite bat sortu behar dute. Bertan, gutxienez EBko zazpi herritar egon behar dute, behintzat zazpi herrialde kideetan bizi direnak.

Herritarren batzordea da ekimena prozedura osoan kudeatzeko arduraduna.

Erakundeek ezin dute herritar ekimenik proposatu. Hala ere, ekimenak sustatzea edo laguntzea baimentzen zaie, erabateko gardentasunez eginez gero.

⁽¹⁾ 211/2011 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko otsailaren 16koa, herritar ekimenari buruzkoa (<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2011:065:0001:0022:ES:PDF>).

⁽²⁾ Herritarrei ez zaie eskatzen hautesle-errolan erregistratuta egoterik, bozkatu ahal izateko moduko adina edukitzea baizik.

Nork sina dezake Europako herritar ekimen bat?

EBko edozein herritarrek (hau da, estatu kide bateko edozein herrikidek), Europako Parlamenturako hauteskundeetan bozkatzeko moduko adina daukanak (18 urte oro har eta 16 Austrian) ⁽³⁾, babes dezake herritar ekimen bat bere sinadurarekin.

Non jakin dezaket zeintzuk diren abian dauden herritar ekimenak?

EBn proposaturiko herritar ekimen guztiak Europako Batzordeak kudeatzen duen webgune nagusi batean daude erregistratuta:

<http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/welcome?lg=es>

⁽³⁾ Herritarrei ez zaie eskatzen hautesle-errolan erregistratuta egoterik, bozkatu ahal izateko moduko adina edukitzea baizik.

NOLA ATXIKI EKIMEN BATI?



EBko herritarra (estatu kide bateko herrikidea) zara, Europako Parlamenturako hauteskundeetan bozkatzeko moduko adina daukazu eta herritar ekimen bat zure sinadurarekin babestu nahi duzu?

Zure babesa adierazteko, ekimenaren antolatzaileek paperean edo (antolatzzaileek xede horretarako webgune bat erabiltzen badute) Internet bidez emandako inprimaki zehatz bat bete behar duzu.

Inprimakiak Herritar Ekimenari buruzko Erregelamenduan ezarritako ereduarekin bat etorri behar du eta ekimenari dagokionez eskatzen diren datu guztiak (izenburua, xedea eta helburuak, etab.) barne hartu behar ditu, baita Batzordearen erregistro-zenbakia ere. Nahi baduzu, Batzordearen webgunean egiaztatu dezakezu ekimen bat erregistroan inskribatu den.

Sinatzaileak inprimakian eman behar duen informazio pertsonala (nazionalitateari edo egoitzari dagokion) estatu kidearen arabera aldatzen da; izan ere, bakoitzak babes-adierazpenak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatzen du.

EBko herrialde batean bizi bazara baina beste herrialde bateko nazionalitatea badaukazu, edo zenbait herrialdeetako nazionalitatea badaukazu, beharbada non sinatu aukera dezakezu, herrialde bakoitzak eskatzen dizun informazioaren arabera.

Edonola ere, kontuan izan behar duzu ekimen bakoitza behin bakarrik sinatu daitekeela.

Paperezko babes-adierazpenak

- › Erabili dagokizun EBko herrialdeko (edo herrialdeetako bateko) inprimakia.
- › Eman eskatutako informazioa (estatu kideen arabera aldatzen da).
- › Sinatu inprimakia eta eman antolatzaileei.

Internet bidezko babes-adierazpenak

- › Sartu antolatzaileen webgunean (Batzordearen webgunean ekime-nerako erreserbatutako orrian aurkituko duzu esteka).
- › Egiaztatu antolatzaileek erabilitako bilketa-sistemak agintaritza nazional eskudun baten ziurtapena jaso duen (antolatzaileek ziurtagiria beren webgunean argitaratu behar dute). Ziurtagiriak bermatzen du sinatzaileen datuak babestuta daudela eta bestelako xedeetarako erabiliko ez direla (hori legez kontrakoa litzateke).
- › Eman eskatutako informazioa eta ziurtatu zure estatu kideak eskatzen dituen datu guztiak sartu dituzula.
- › Zure babes-adierazpena web-orri baten bidez bidaltzeko, ez zaude behartuta sinadura elektronikorik erabiltzera.

Beharrezko babes-adierazpenak bildu ostean, antolatzaileek agintaritza nazionaleri aurkeztu behar dizkiete, egiaztatu ditzaten.

Antolatzaileek eta agintaritza nazionalak zure datuak babestu behar dituzte eta ezin dituzte sinatzaileen zerrendak jakitera eman. Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, ikusi «Nola babesten dira sinatzaileen datuak?» apartatua.

Babes-adierazpenerako inprimakiaren bi adibide (paperean):

FINLANDIA

EUROPAKO HERRITAR EKIMENERAKO BABES-ADIERAZPENAREN INPRIMAKIA:

Bestelakorik esan ezean, inprimaki honetako lauki guztiak nahitaezkoak dira.

1. Inprimaki honen sinatzaile guztiak herrialde honetan bizi dira edo herrialde honetako herritarrak dira: FINLANDIA

- | | |
|--|---------------------|
| 2. Europako Batzordearen erregistro-zenbakia: | 3. Erregistro-data: |
| 4. Proposatutako herritar ekimenaren web-orriaren helbidea Europako Batzordearen erregistroan: | |
| 5. Proposatutako herritar ekimen honen izenburua: | |
| 6. Xedea: | |
| 7. Helburu nagusiak: | |
| 8. Erregistratutako harremanetarako pertsonen izena eta helbide elektronikoa: | |
| 9. Erregistratutako beste antolatzaileen izena: | |
| 10. Proposatutako herritar ekimenaren web-orria (egonez gero): | |

**Antolatzaileek
betetzeko**

SINATZAILEEK LETRA LARRIZ BETETZEKO

«Honen bitartez, behean sinatzen duenak ziurtatzen du inprimaki honetan emandako datuak zuzenak direla eta proposatutako herritar ekimen hau ez duela oraindik bere sinadurarekin babestua».

IZEN OSOA	ABIZENAK	EGOITZA IRAUNKORREKO HERRIALDEA	JAIOTZE-DATA	NAZIONALITATEA	DATA ETA SINADURA (*)

**Sinatzaileek
betetzeko**

(*)Sinadura ez da nahitaezkoa baldin eta inprimakia formatu elektronikoan aurkezten bada, web-orrien bidezko bilketa-sistema baten bitartez, 211/2011 Erregelamenduen (EB) 6. artikuluan xedatu moduan.

Konfidentziasun-adierazpena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentarauak (pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez babesteari buruzkoak) 10. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri, inprimaki honetan proposatutako ekimenaren antolatzaileei emandako datu pertsonalak proposatutako herritar ekimen honetarako jaso diren babes-adierazpen balioidunen kopurua egiaztatzeko eta ziurtatzeko eskumena duten agintaritzaren esku soilik jarriko dira [ikusi Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko otsailaren 16ko 211/2011 Erregelamendua (EB), Herritar Ekimenari buruzkoak, 8. artikuluan dioena] eta, hala badagokio, herritar ekimen honi buruzko prozedura judicial eta administratiboetarako prozesatuko dira [ikus 211/2011 Erregelamenduen (EB) 12. artikulua]. Datuak ezin dira beste ezin erabileratarako erabili. Datuek hizpide dituzten pertsonak beren datu pertsonalak ikusteko eskubidea daukate. Babes-adierazpen guztiak gehienez ere proposatutako herritar ekimenaren erregistro-data eta 18 hilabete gerago sutsituko dira edo, prozedura administratibo eta judizialean, gehienez ere prozedura horiek amaitu eta astebetera.

AUSTRIA

EUROPAKO HERRITAR EKIMENERAKO BABES-ADIERAZPENAREN INPRIMAKIA:

Bestelakorik esan ezean, inprimaki honetako lauki guztiak nahitaezkoak dira.

1. Inprimaki honen sinatzaile guztiak herrialde honetan bizi dira edo herrialde honetako herritarrak dira: AUSTRIA

[ikus 211/2011 Erregelamendua (EB) III. eranskineko C zatian identifikazio-agiri pertsonalaren zenbakiei buruz ezartzen duena, horietako bat eman beharko baita.

- | | |
|--|---------------------|
| 2. Europako Batzordearen erregistro-zenbakia: | 3. Erregistro-data: |
| 4. Proposatutako herritar ekimenaren web-orriaren helbidea Europako Batzordearen erregistroan: | |
| 5. Proposatutako herritar ekimen honen izenburua: | |
| 6. Xedea: | |
| 7. Helburu nagusiak: | |
| 8. Erregistratutako harremanetarako pertsonen izena eta helbide elektronikoa: | |
| 9. Erregistratutako beste antolatzaileen izena: | |
| 10. Proposatutako herritar ekimenaren web-orria (egonez gero): | |

**Antolatzaileek
betetzeko**

SINATZAILEEK LETRA LARRIZ BETETZEKO

«Honen bitartez, behean sinatzen duenak ziurtatzen du inprimaki honetan emandako datuak zuzenak direla eta proposatutako herritar ekimen hau ez duela oraindik bere sinadurarekin babestua».

IZEN OSOA	ABIZENAK	EGOITZA IRAUNKORREKO HERRIALDEA	JAIOTZE-DATA	NAZIONALITATEA	DATA ETA SINADURA (*)

**Sinatzaileek
betetzeko**

(*)Sinadura ez da nahitaezkoa baldin eta inprimakia formatu elektronikoan aurkezten bada, web-orrien bidezko bilketa-sistema baten bitartez, 211/2011 Erregelamenduen (EB) 6. artikuluan xedatu moduan.

Konfidentziasun-adierazpena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentarauak (pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez babesteari buruzkoak) 10. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri, inprimaki honetan proposatutako ekimenaren antolatzaileei emandako datu pertsonalak proposatutako herritar ekimen honetarako jaso diren babes-adierazpen balioidunen kopurua egiaztatzeko eta ziurtatzeko eskumena duten agintaritzaren esku soilik jarriko dira [ikus 211/2011 Erregelamenduen (EB) 12. artikulua]. Datuak ezin dira beste ezin erabileratarako erabili. Datuek hizpide dituzten pertsonak beren datu pertsonalak ikusteko eskubidea daukate. Babes-adierazpen guztiak gehienez ere proposatutako herritar ekimenaren erregistro-data eta 18 hilabete gerago sutsituko dira edo, prozedura administratibo eta judizialean, gehienez ere prozedura horiek amaitu eta astebetera.

NOLA BABESTEN DIRA SINATZAILEEN DATUAK?



Prozesu osoan, alderdiek datuak babesteari buruzko indarreko legeria errespetatu behar dute ⁽⁴⁾. Bereziki, babes-adierazpenak bildu baino lehen, antolatzaileei eskatu ahal zaie informazioa tratatuko den estatu kideetan datuak babesteaz arduratzen diren agintaritzei ⁽⁵⁾ jakinaraz diezaietela.

Gainera, herritar ekimenari buruzko erregelamenduan datuak babesteari buruzko xedapen zehatzagoak jasotzen dira.

Antolatzaileek honako betebeharrak dituzte:

- Datu pertsonalak istripuzko edo legez kontrako suntsipenetik, istripuzko galeratik, baimendu gabeko aldaketatik, hedapenetik edo sarbidetik babesteko egokiak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatzea, bereziki tratamenduak datuak sare baten barruan transmititzea dakarrenean, baita beste edozein legez kontrako tratamendutatik babestekoak ere.
- Bermatzea bildutako datu pertsonalak kasuan kasuko ekimenerako adierazitako babesaz bestelako xedeetarako erabiltzen ez direla.
- Babes-adierazpen guztiak eta horien kopiak suntsitzea ekimena Batzordeari aurkeztu eta hilabeteko epean, edo ekimenaren erregistro-datatik aurrera 18 hilabeteko epean, lehenago betetzen den epea ⁽⁶⁾.

Herritar ekimen baten antolatzaileak egin ditzaketen kalteen erantzuleak dira eta herritar ekimenari buruzko erregelamenduen xedapenak urratzeagatik prozesatuak izan daitezke, bereziki datuak iruzurrez erabiliz gero.

Bestalde, agintaritzak nazionalak betebeharrak dituzte:

- Datu pertsonalak soilik babes-adierazpenak egiaztatzeko xedearekin erabiltzea.
- Babes-adierazpen guztiak eta horien kopiak suntsitzea, babes-adierazpen baliiodunen kopurua ziurtatu eta hilabete bateko epean ⁽⁶⁾.

⁽⁴⁾ 95/46/EE Zuzentarautik eratorritako legeria.

⁽⁵⁾ http://ec.europa.eu/justice/data-protection/article-29/structure/data-protection-authorities/index_en.htm

⁽⁶⁾ Babes-adierazpenak aurreikusitako epeez haraindi gorde ahalko dira, ekimenari buruzko prozedura judizial edo administratiboetarako beharrezkoa bada. Horrelakoetan, azken erabakiaren arabera prozedura horiek amaitu eta astebetere gehienez suntsituko dituzte antolatzaileek adierazpen eta kopia guztiak.

NOLA ANTOLATZEN DA EKIMEN BAT?

PROZEDURA
URRATSEZ URRATS



Prozedura begiratu batean

PRESTAKETA



Ekimena prestatu eta herritarren komitea eratu.




Ekimena erregistratu.

Batzordeak 2 hilabetetan erantzuten du



Internet bidez:
Sistema ziurtatu behar da.


Agintaritza nazionalak hilabete
1ean erantzuten du



Batzordeak ekimena aurrera eramatea erabakitzen badu, prozedura legegilea abian jartzen da, Batzordeak proposamena onartutakoan.

BILKETA


4.



Babes-adierazpenak bildu EBko 7 herrialdetan gutxienez

Gehienez 12 hilabete

5.



Agintaritza nazionaletatik adierazpenen ziurtapena lortu

Agintaritza nazionaletatik 3 hilabetetan erantzuten dut

AURKEZPANA

7.



Batzordeak ekimena aztertzen du eta erantzun bat ematen du, antolatzaileekin bildu eta Europako Parlamentuan entzunaldi publikoa eman ostean.

Batzordeak 3 hilabetetan erantzuten du

6.



Gutxienez milioi 1 sinadura lortu badira, ekimena Batzordeari aurkeztu ahal zaio.



Ekimena prestatzea

Hasteko, antolatzaileek erabaki behar dute Europako herritar ekimena haien proiekturako tresna egokia den. Herritar ekimenek Europar Batzordeari legeria proposatzeko eskatu behar diote. Beraz, Batzordeak eskumenak dituen eremu bati buruzkoak izan behar dute (?). Antolatzaileei EBko indarreko legeria kontsultatzea gomendatzen zaie. EBko erakundeetara jotzeko beste bide batzuk egokiagoak izan daitezke zenbait kasutan (adibidez, Europako Parlamentuarentzako eskaerak, kontsulta publikoetako partaidetza edo Europako Arartekoarentzako kexak) (8).

Herritar ekimen bat abian jartzeko betekizunei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi «Ekimena Batzordearen web-erregistroan inskribatzea» apartatua.

Herritarren komitea sortzea



Ekimena abian jarri baino lehen, antolatzaileek komite bat sortu behar dute, gutxienez EBko zazpi herritarrekin (estatu kide bateko zazpi herrikiderekin), Europako Parlamenturako hauteskundeetan bozkatzeko moduko adina dutenekin (9) eta behintzat zazpi estatu kideetan bizi direnekin. Komiteko kideek ez dute EBko zazpi estatu desberdinetako herrikideak izan behar. Proposatutako ekimena erregistratzeko unean, arestian aipatutako irizpideak betetzen dituzten zazpi kideren berri baino ez da eman behar (Europako Parlamentuko diputatuak kanpoan utzita). Haien izenak Batzordearen webgunean argitaratuko dira.

Komite hori ekimenaren «antolatzaile» ofizialtzat jotzen da eta prozedura osoan kudeatzeko arduraduna da.

Komiteak, bere kideen artean, Batzordearen aurrean komitearen izenean hitz egin eta jardungo duten ordezkari bat eta ordezeko bat izendatu behar ditu.

(?) Batzordearen eskudantziei buruzko orientabide gehiago nahi izanez gero, ikusi: <http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/competences?lg=es>

(8) EBra jotzeko hautazko beste bide batzuei buruzko informazio gehiago, hemen: <http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/alternative-ways-eu?lg=es>

(9) Herritarrei ez zaie eskatzen hautesle-errodan erregistratuta egoterik, bozkatu ahal izateko moduko adina edukitzea baizik (18 urte oro har eta 16 Austrian).



Ekimena Batzordearen web-erregistroan inskribatzea

Herritarren babes-adierazpenak biltzen hasi baino lehen, antolatzaileek beren ekimena Batzordearen web-erregistroan inskribatu behar dute:

<http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/registration?lg=es>



Ekimen bat erregistroan inskribatu ahal izateko, informazio hau eman behar da, EBko 24 hizkuntza ofizialetako batean:

- › Ekimenaren izenburua (gehienez 100 karaktere).
- › Xedea (gehienez 200 karaktere).
- › Helburuen deskribapena (gehienez 500 karaktere).
- › Proposatutako ekimenerako egokitzat jotzen diren EBren tratatuen xedapenak ⁽¹⁰⁾;
- › Herritarren komitearen zazpi kideen izen-abizenak, posta-helbidea, nazionalitatea eta jaiotza-data, ordezkaria eta ordezkoa zehatz-mehatz aipatuz, baita haien helbide elektronikoak eta telefono-zenbakiak ere.
- › Herritarren komiteko zazpi kideetako bakoitzaren izen-abizenak, posta-helbidea, nazionalitatea eta jaiotza-data frogatzen dituzten agiriak.
- › Ekimenerako finantzaketa- eta babes-iturri guztiak (erregistroaren unean ezagutzen direnak), urteko eta babesleko 500 euroatik aurrera.

Gainera, antolatzaileek honako hauek ere eman ahalko dituzte:

- › Ekimenerako haien web-orriaren helbidea (egonez gero).
- › Ekimenari buruzko informazio zehatzagoa jasotzen duen eranskin bat.
- › Lege-testuaren proiektu bat.

⁽¹⁰⁾EBren tratatuei buruzko informazio gehiago, hemen: <http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/competences?lg=es>

Baldintzak

Erregistroan inskribatzea ez da automatikoa. Ekimen bat ofizialki erregistratu eta erregistroaren web-orrian agertu ahal izan baino lehen, Batzordeak bi hilabete ditu honako hau egiaztatzeko:

- Herritarren komitea eratu da eta harremanetarako pertsonak izendatu dira.
- Ekimena ez dago Batzordeak EBren tratatuak aplikatzeko ondorioetarako lege-testu baten proposamen bat aurkezteko eskumenen eremutik kanpo ageriki.
- Ekimena ez da abusuzkoa, azalekoa edo ausartegia ageriki.
- Ekimena ez dago EBren tratatuetan ezarritako Europar Batasunaren balioen aurka ageriki ⁽¹¹⁾.

Ekimena erregistratutakoan, ordezkariak eta haren ordezekoak Batzordearen webgunean kontu seguru baterako sarbidea edukiko dute. Hortik, prozeduraren hurrengo etapei buruzko informazioa lortu ahalgo dute, eta Batzordeari ekimenaren esparruan egiten dizkioten bidalketa guztiak kudeatu.

Bereziki, kontu horren bitartez ekimena EBko beste hizkuntza ofizial batzuetara itzulita eman ahalgo dute. Antolatzaileek ahaleginak egin behar dituzte itzulpenak jatorrizkoarekiko fidelak izan daitezen. Batzordeak ez ditu argitaratuko horietan desadostasun ageri eta esanguratsuak aurkitzen baditu.

Era berean, antolatzaileek, aldizka, ekimenerako finantzaketa- eta babes-iturri guztiei buruzko informazio eguneratua eman behar dute, urteko eta babesleko 500 eurotatik aurrera.

Oharra: – Erregistroan inskribatutako ekimen baten antolatzaileek edozein unetan bertan behera utzi ahal dute, baldin eta egiaztatzeko eskumena duen agintaritzak nazional bati babes-adierazpenik bidali ez badiote. Bertan behera uztea itzulezina da: bertan behera utzitako ekimenak ezin dira berrabiarazi eta bildutako babes-adierazpen guztiak gabe geratzen dira. Bertan behera utzitako ekimenek Batzordearen webguneko artxibatutako ekimenen atalean agertzen jarraituko dute –baztertu direla adierazita–.

- Gardentasunari lotutako arrazoiak direla eta, erregistroa ukatu zaien proposatutako ekimenen testua eta Batzordeak inskripzioa ukatzeko izan dituen arrazoiak webgune honetan kontsulta daitezke:

<http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/initiatives/non-registered?lg=es>

⁽¹¹⁾ Europar Batasunaren Tratatuen 2. artikulua: «Batasunak oinarrizko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartzasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan».



Web-orrien bidezko bilketa-sistema egiaztatzea

Babes-adierazpen elektronikoak lortzeko, lineako bilketa-sistema bat sortu behar da, betekizun jakin batzuekin bat datorrena.

Erabilitako sistemak honako hau bermatu behar du:

- Pertsona fisikoak (ez ordenagailuak) dira babes-adierazpenaren inprimaki bat aurkeztu ahal duten bakarrak.
- Elektronikoki emandako datuak modu seguruan biltzen eta gordetzen dira.
- Babes-adierazpenak bat datoz agintaritza nazional eskudunei egiaztatzeko bidea ematen dien formatuarekin.

Lineako bilketa-sistemek eduki behar dituzten ezaugarri tekniko eta segurtasunezko ezaugarri zehatzak berariazko erregelamendu batean ezartzen dira (ikus esteka aurrerago).

Antolatzaileei beren bilketa-sistemak sortzen laguntze aldera, Batzordeak kode irekiko software bat, ezarritako betekizunekin bat datorrena, garatu du.

Web-sistemaren bidez babes-adierazpenak biltzen hasi baino lehen, antolatzaileek datuak gordeko diren EBko herrialdeko agintaritza eskudunaren ziurtapena lortu behar dute.

Batzordearen softwarea bilketa-sistemaren zati bat baino ez da, eta, horregatik, hori erabiltzeak ez du ziurtapenetik salbuesten, baina ziurtatzea erraztu egiten du.

Agintaritza nazionalak hilabete bat daukate egiaztapen-eskaerari erantzuteko. Ziurtagiria lortutakoan, antolatzaileek beren webgunean jakitera eman behar dute.

Oharra: – Ziurtapena ekimena Batzordearen erregistroan inskribatu aurretik edo inskribatu ostean lor daiteke.

– 2012ko uztailetik, lehen antolatzaileek aurkitutako zailtasunak kontuan hartuta, Batzordeak lineako bere bilketa-sistemak behin-behinean ostatatze eskaintzen du bere burua. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi:

<http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/hostin>

Baliabide erabilgarriak

- › Lineako bilketa-sistemek eduki behar dituzten ezaugarri tekniko eta segurtasunezko ezaugarri zehatzak ezartzen dituen erregelamendua: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2011:301:0003:0009:ES:PDF>
- › Batzordeak sortutako kode irekiko softwarea: <http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/software?lg=es>
- › Bilketa-sistemak egiazta ditzaketen agintaritza nazionalen zerrenda: <http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/authorities-online-systems?lg=es>



Babes-adierazpenak biltzea

Gehienez
12 hilabetetan

Ekimenaren inskripzioa baieztatutakoan, antolatzaileak herritarren babes-adierazpenak biltzen has daitezke. Urte bat daukate hori egiteko. Babes-adierazpenak web-orrien bidez edo paperean bil daitezke.

Babes-adierazpenak biltzeko, herritar ekimenari buruzko erregelamenduan ezarritako erduekin bat datozen inprimakiak erabili behar dira. Horieta, proposaturiko ekimenari dagokionez eskatzen den informazio guztia jasotzen da. Informazio horrek eta Batzordearen webgunean argitaratutakoak berdindina izan behar du.

Antolatzaile-kontutik jada betetako eta kasu bakoitzera egokitutako inprimakiak deskarga daitezke. Hauen artean aukeratzeko bidea ematen dute:

- › Babes-adierazpenak zein estatu kidetan bilduko diren.
- › Esparruetako izenak EBko zein hizkuntza ofizialetan agertuko diren.
- › Ekimenari buruzko informazioa zein hizkuntzatan emango den (Batzordearen webgunean argitaratzeko erabilitakoen artean).

Datuen babesa

Prozesu osoan, antolatzaileek datuen babesari buruzko indarreko legeria errespetatu behar dute. Zehatz-mehatz, babes-adierazpenak bildu baino lehen, antolatzaileei eskatu ahal zaie informazioa tratatuko den estatu kideetan datuak babesteaz arduratzen diren agintaritzei ⁽¹²⁾ jakinaraz diezaietela. Datuen babesari buruzko informazio gehiago, «Nola babesten dira sinatzaileen datuak?» apartatuan.





























⁽¹²⁾ http://ec.europa.eu/justice/data-protection/article-29/structure/data-protection-authorities/index_en.htm.

Sinaduren gutxieneko kopurua Estatu kideko

Babes-adierazpena EBko 28 estatu kideetan biltzeko eskatzen ez den arren, gutxienez horietako zazpitan sinatzaileen gutxieneko kopuru bat lortu behar da (ikus taula).

Oharra: gutxieneko atalasea lortu ez den estatu kideetan bildutako babes-adierazpenak ere aintzat hartuko dira eskatutako milioi sinadura zenbatzeko.

Sinaduren gutxieneko kopurua estatu kideko [2014ko uztailaren 1etik aurrera erregistratutako ekimenak ⁽¹³⁾]

Alemania		72 000
Austria		13 500
Belgika		15 750
Bulgaria		12 750
Zipre		4 500
Kroazia		8 250
Danimarka		9 750
Eslovakia		9 750
Eslovenia		6 000
Espainia		40 500
Estonia		4 500
Finlandia		9 750
Frantzia		55 500
Grezia		15 750
Hungaria		15 750
Irlanda		8 250
Italia		54 750
Letonia		6 000
Lituania		8 250
Luxenburgo		4 500
Malta		4 500
Herbehereak		19 500
Polonia		38 250
Portugal		15 750
Erresuma Batua		54 750
Txekia		15 750
Errumania		24 000
Suedia		15 000

⁽¹³⁾ 2014ko uztailaren 1a baino lehen erregistratutako ekimenetarako, hemen kontsulta daitezke atalaseak: <http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/signatories?lg=es>



Babes-adierazpenen ziurtapena lortzea

Ekimenerako behar diren babes-adierazpenak bildu ostean, antolatzaileek bilketa burutu den EBko herrialde bakoitzeko agintaritza eskudunari eskatu behar diote babes-adierazpen baliiodunen kopurua ziurtatzeko.

Ziurtapena behin bakarrik eskatu behar da, banan-banan, babes-adierazpenak bildu diren estatu kide bakoitzean.

Babes-adierazpen elektronikoak edo paperezkoak bidal daitezke. Paperean bildutako babes-adierazpenak, lineako bilketa-sistema baten bidez lortutakoak eta sinadura elektronikoaren bitartez sinatu direnak bereiz aurkeztu behar dira.

Web-orrien bidez bildutako babes-adierazpenak paperean bidaltzeko inprimatu, edo elektronikoki babestu daitezke, bitarteko seguru baten bidez (adibidez, CD-ROMean zifratutako fitxategiak). Halaber, XML fitxategiak erabiltzea baimentzen da, baldin eta kasuan kasuko agintaritza nazionalak onartzen baditu (ikus Batzordearen webgunea). Batzordeak sortutako softwareak adierazpenak XML formatuan esportatzea ahalbidetzen du.

Agintaritza nazionalak hiru hilabete dituzte babes-adierazpen baliiodunen kopurua ziurtatzeko. Adierazpenak kontrol egokien bidez egiaztatuko dira; ausazko laginketetan oinarrituta egon daitezke.

Egokiak diren kontrolen ostean, agintaritza nazionalak, azkenean, aurkeztutakoa baino adierazpenen kopuru txikiagoa ziurta ditzakete. Horregatik, antolatzaileei gomendatzen zaie eskatutakoak baino babes-adierazpen gehiago biltzea.

Baliabide erabilgarriak

- › Babes-adierazpen baliiodunen kopurua ziurtatzeaz arduratzen diren agintaritza nazionalen zerrenda: <http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/authorities-verification?lg=es>



Herritar ekimena Batzordeari aurkeztea

Agintaritza nazional eskudunetatik babes-adierazpenen beharrezko kopurua (milioi bat guztira, gutxienez zazpi estatu kidetan ezarritako minimoetara helduta) bildu dela egiaztatzen duten ziurtagiriak lortu ostean, antolatzaileek ekimena Batzordeari aurkeztu ahal diote, azter dezan.

- › Antolatzaileek gogoratu behar dute babes-adierazpen guztiak eta horien kopiak suntsitzeko legezko betebeharra daukatela, ekimena Batzordeari aurkeztu eta hilabeteko epean edo ekimenaren erregistro-datatik 18 hilabeteko epean (aurkezteko behar den adierazpenen kopurua lortzen ez badute).

MILIOI BAT
SINADURA
DAUZKAGU!

ETA ORAIN ZER?



Hiru hilabeteko epean, babes-adierazpenen beharrezko kopurua lortu duen ekimen bat aurkezten denetik:

- Antolatzaileak Batzordeko ordezkariekin biltzen dira beren ekimenak mahai gainean jartzen dituen kontuak zehatz-mehatz azaltzeko.
- Antolatzaileek Europako Parlamentuan antolaturiko entzunaldi publiko batean aurkez dezakete beren ekimena.
- Batzordeak ekimena arretaz aztertzen du eta erantzun ofizial bat ematen du. Horren bidez, hartzeko proposatzen diren neurriak zehazten ditu, halakorik egonez gero, baita hori egiteko arrazoiak ere.

Erantzun hori komunikazio ofiziala da, komisarioen kolegioak onetsia eta EBko hizkuntza ofizial guztietan argitaratua.

Batzordeak herritar ekimen bati erantzuteko legeria proposatzea erabakitzen duenean, ohiko prozesua abian jarriko da (behar diren kontsulta publikoak, inpaktu-ebaluazioak eta abar barne). Batzordeak onetsitakoan, proposamena Europako legegilerara bidaliko da (Europako Parlamentura eta Kontseilura edo bakarrik Kontseilura, kasu jakin batzuetan), eta horrek onartu egin beharko du lege bihurtu ahal izateko.

Miloi bat sinadura baino gehiago

BILDU DITUZTEN LEHEN HIRU EKIMENAK

RIGHT₂WATER

«Right2Water» ekimenak honen alde egiten du: «Nazio Batuek aitortzen duen uretarako eta saneamendurako giza eskubidea ezartzen duen eta ur-hornidura eta saneamendua denentzako funtsezko zerbitzu publiko gisa sustatzen duen legeria bat».

Batzordeak baiezkoa eman zien tratatuen arabera bere eskumenekoak ziren eskaerei, subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioek hori baimentzen zuten alderdian. Batzordeak neurri batzuk hartzeko konpromisoa hartu zuen, besteak beste, Edateko Uraren Zuzentarauari buruzko kontsulta publiko bat (2014ko ekainetik irailera) eta ebaluazio bat (2015eko uztailan hasi zen), ur-horniduraren zerbitzuetarako erreferentziako irizpide zabalago batzuen definizioa eta uretarako eta saneamendurako sarbide unibertsalaren sustapena 2015. urtearen osteko garapen-agendarako lehentasun gisa. Azken esparru horretan, EBren ahaleginak oso lagungarriak izan dira uretarako eta saneamendurako sarbide unibertsala garapen jasangarriko helburuen zerrendan mantentzeko (2015eko iraila). Azkenik, ez da ahaztu behar Batzordeak uraren sektorea 2014/23/EB Zuzentzarautik, Emakida Kontratuen Adjudikazioari buruzkotik, kanpo utzi zuela ekimena oraindik sinadurak biltzeko fasean zegoenean.

GUTAKO BAT

«Gutako bat» ekimenak honetara hertsatzen zuen EB: «giza enbrioia suntsitzea dakarten jardueren finantzaketari amaiera ematea, bereziki ikerketaren, garapenerako laguntzaren eta osasun publikoaren eremuetan».

Batzordeak komunikazio bat onetsi zuen, non azaldu zuen ez zuela legegintza-proposamen bat aurkezteko asmorik; izan ere, indarreko esparru juridikoa, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak berriki onetsi baitzuten, egokitzat jotzen zen.

STOP VIVISECTION

«Stop Vivisection» (geldiarazi bibisekzioa) ekimenak honetara bultzatzen zuen Batzordea: «2010/63/EB Zuzentzaraua, Helburu Zientifikoetarako Erabilgaitako Animaliei Babesari buruzkoa, indargabetzea eta beste proposamen bat aurkezte, animaliekin esperimintatzeari amaiera ematen diona eta, horren ordez, giza espeziearentzat zuzenean egokiak diren datuak erabiltzea nahitaezkoa egiten duena —ikerketa biomedikoan eta toxikologikoan—».

Batzordea ados dago ekimen horrekin, animaliekin egiten diren saiakerak desagerrarazi behar direla sinetsita baitago. Hala ere, EBN animaliekin egindako ikerketaren erabateko debekua goiztiarra litzateke eta ikerketa biomedikoa Europatik urrunaraz lezake. Horregatik, 2010/63/EB Zuzentaraua, Helburu Zientifikoetarako Erabilitako Animaliei Babesari buruzkoa, beharrezkoa da, animalien babes-maila altua bermatzen du eta. Hori indargabetzeak, esperimenduetan animaliak erabiltzea eragozteaz gain, esperimenduak egiten diren modua desarautuko luke; beraz, erabilitako animaliak kalteberagoak egingo lituzke eta hautabideak garatzeko itxaropenak murriztuko lituzke.

Batzordeak bestelako neurriak hartzeko konpromisoa hartu du animaliekin egindako esperimenduak pixkanaka deuseztatzeko asmoz. 2016a baino lehen, konferentzia bat antolatuko da, non komunitate zientifikoak eta interesdunek parte hartuko duten eta aplikatutako neurriei buruzko txosten bat aurkeztuko duen.

Ekimena	Batzordeari aurkeztea	Antolatzaileen eta Batzordearen arteko bileraren data	Europako Parlamentuko entzunaldi publikoaren data	Batzordearen erantzunaren data
Right2Water ECI(2012)000003	2013-12-20	2014-02-17	2014-02-17	2014-03-19
Gutako bat ECI(2012)000005	2014-02-28	2014-04-09	2014-04-10	2014-04-28
Stop vivisection ECI(2012)000007	2015-03-03	2015-05-11	2015-05-11	2015-06-03

Batzordeak hartutako neurriei buruzko informazio osoa hemen dago eskuragarri:

- http://ec.europa.eu/dgs/secretariat_general/followup_actions/citizens_initiative_es.htm

NOLA LORTU INFORMAZIO GEHIAGO?

Interesdunak herritar ekimenaren erregistroaren web-orrian informa daitezke:

<http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/welcome?lg=es>

Webgune horretan honako hauek aurkituko dituzte:

- › Herritar ekimen guztiei buruzko informazioa, haien egoeraren arabera aurkeztuta (irekiak, itxiak, zaharkituak, etab.).
- › Interesatzen zaizkien ekimenak aurkitzeko bilaketa-tresna bat.
- › Zuzentzen dituzten arauetako buruzko informazio zehatza.
- › Herritar ekimenak, maila nazionalen eskumenak dituzten agintaritzen zerrenda bat, orientabidea eta ohiko galderak.
- › Erregistro-inprimakia.
- › Webgunearen bidez, antolatzaileek beren «antolatzaile-konturako» sarbidea daukate. Horrek ekimena kudeatzea ahalbidetzen die, Batzordearen erregistroan inskribatu ostean.

Beste kontsulta batzuetarako, Europe Direct sarera jo dezakete

Tel.: 00 800 6 7 8 9 10 11 (*)

Helbide elektronikoa: http://europa.eu/contact/write-to-us/index_es.htm

Txata: http://europa.eu/europedirect/web_assistance/index_es.htm

Halaber, beren herrialdeko Europe Directen zentroetako batekin jar daitezke harremanetan. Europe Directen zentroen zerrenda:

http://europa.eu/europedirect/meet_us/index_es.htm

(*) Zerbitzua, oro har, doakoa da (hala ere, zenbait operadorek, telefono publikok eta hotelek deia kobra dezakete).

Ohar garrantzitsua

Argitalpen honek Europako herritar ekimena zuzentzen duten arau eta betekizunei buruzko informazio orokorra ematen du. Haren edukia ez da juridikoki loteslea eta ez du sakona izateko asmorik.

Arauen testu osoa 211/2011 Erregelamenduan (EB), Herritar Ekimenari buruzkoan, dago jasota.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2011:065:0001:0022:ES:PDF>



ESKUBIDE BERRI BAT
EB-KO HERRITARRENTZAT

ZURE ESKU DAGO NORABIDEA ALDATZEA

Informatu zure eskubide berriaz hemen:
[http://ec.europa.eu/citizens-initiative/
public/welcome?lg=es](http://ec.europa.eu/citizens-initiative/public/welcome?lg=es)